

A24 - Egia ala gezurra? Esperimentu faltsuak agerian uzten

Terraplanismoa ere munduan zehar zabaltzen den garai batean, baliozko teoria balitz bezala, sareetan dabilen informazio faltsuaren kopurua oso handia da. Inoiz baino beharrezkoagoa da espiritu kritikoa sustatzea, bereziki esparru zientifikoan, intoxikazio edo iruzur baten informazio fidagarria irizpide jakin batekin bereizteko gai izateko. Hori da jarduera honen helburua. Bertan, Tecnalia ikerketa eta garapen teknologikoko zentroak **gelan aditua den pertsona baten hitzaldia/tailerra** proposatzen du, eta ikasleek emaitzak kontrastatzeko eta informazio faltsuak agerian uzteko aukera izango dute, zenbait zientzia-esperimenturen bidez.

Kurtsoa/Maila

4.DBH

1. Batxilergoa

2. Batxilergoa

Datak

Adosteke

Ikaskuntza-arloak

Fisika

Kimika

Kultura Zientifikoa

Lanbide Orientazioa

Marrazketa Teknikoa

Teknologia

Jarduera formatua

Aditua ikasgelan

Hizkuntza

Euskara, Gaztelania

Irismen geografikoa

Araba/Álava, Bizkaia, Gipuzkoa

Entitatea/Enpresa

Tecnalia

Baliabide materialak eta ekonomikoak

Ikusi fitxaren amaiera

STEM Deskribatzaileak

STEM 2

STEM 4

STEM 5

STEM 6

STEAM Printzipioak

P1

P4

P5

Jarduera gauzatzea

Espiritu zientifiko kritikoa garatzeko, aditu batek dinamizatutako tailer bat proposatzen da, zenbait gezur eta esperimentu zientifiko aztertu eta eztabaidatzeko, batzuk modu praktikoan tailerrean bertan, eta beste batzuk birtualki Interneteko bideoen bidez.

Aztertu nahi diren baliozko esperimentuen artean daude Heronen iturria, Jottabich-en ahatea edo Krookeren erradiometroa.

Ikasleek emaitzak kontrastatu eta informazio faltsuak agerian utz ditzakete esperimentuak eginez; ezagutza partekatu berria sortuko dute, espiritu kritikoa sustatuz.

Integrazioa ikasgelan

Ikasleek problema edo proiektu egoeran ikasitakoa aplikatuko dute eta jarduera baloratuko dute.

A24 - Egia ala gezurra? Esperimentu faltsuak agerian uzten

Curriculumarekin lotura

Jarduerarekin zerikusia duten curriculum ikasketak:

Fisika-Kimika

- Metodologia zientifikoa eta haren oinarriko ezaugarriak aplikatzeko irizpideak eta jarraibideak, gaiak planteatzean problemak ebatzian, lan esperimentalean eta proiektu zientifikoek ekintzailertan.

Kultura zientifikoa

- Ikertzeko eta esperimentatzeko metodoa: Heronen iturria, Jottabicheko ahatea edo Crookesko erradiometroa bezalako adibideak aztertzea.
- Zientzia eta komunikazioa: fake news.

Teknologia

- Arazoak ekintzailertan, pertseberantzia eta sormenean, jarduera teknologikoaren diziplinarteko ikuspegitik eta lanaren eta kalitatearen asebetetzean.
- Proiektuaren aurkezpena eta hedapena. Elementuak, teknikak eta tresnak. Komunikazio eraginkorra: egitura linguistikoak, hiztegi teknikoak, intonazioa, adierazpena, denboraren kudeaketa, diskurtsoaren egokitzapena eta hizkuntza inklusiboa, estereotipo sexistarik gabekoa, ingurune fisiko eta birtualetan kultura-aniztasuna eta adierazpen-moduak errespetatuz.

Baliabideak

Baliabide materialak:

- Jarduera garatzeko, beharrezkoa da lan-mahaiak (ez auditorioa) dituen eremua.

Informazio gehiago:

<https://www.tecnalia.com/>